



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Fikzioaren alde

Alfonbra baten azpian mundu oso bat sartzen da. Umetako logelako asteroko garbiketari hautsa, paper apurtuak, galtzerdi galduak eta gozoki-azalak sartzen genituen alfonbrapean. Eta olatuak atzematen genituen gure alfonbra urdinean. Jauzi egingo genuen gainera, botetako lokatza askatu nahi genuenean bezala zanpa-zanpa egingo genuen lur gaineko geruza iletsua, gainean etzango ginen gure gorputz arinegiarekin koskak berdindu nahian eta ustez dena bere lekuan zegoenean gurasoei deituko genien, gela zeinen txukun utzi genuen ikus zezaten. Eta beren begirada zorrotzak gelako zoko bakoitza arakatzen zuen bitartean alfonbran ahaztutako koskaren bat nabaritu usteko genuen; azpiko gozoki-azala mugitzen ari zela irudituko zitzaigun, hondakinak in-tsektu bilakatzen hasi balira bezala.

Ez dakit zergatik den, baina Donostiako Zinemaldia hasten den bakoitzean akordatzeko naiz umetako alfonbra urdin harekin. Kursaleko moke-ta gorriaren parean ilarak izaten dira; argazkilariak eta autografo ehizan dabil-tzan koadernoak baranda gainean luzatutako besoe-tan. Hain arrotz zitzaigun zeremonia harekin topo egin genuen lehenengo al-dia etortzen zait burura sarri: pelikula bat ikustera etorri eta nola jakin genuen derrigor igaro behar genuela alfonbra gainetik aretora sartu nahi bagenuen. Eta txandal zahar bat jantzita nola geratu ginen, behin behar-eta, nabarmen.

Urteroko zeremoniak jada halako harriturik sortzen ez badit ere, alfonbra gorriak obsesionatu egiten nau oraindik. Erakustea baino hoberik ez baitu zerbait ez-kutatu nahi duenak. Alfonbra azpian mundu oso bat sartzen da, baina alfonbra bukatu, argiak itzali eta pantaila erraldoia pizten denean, beste mundu bat jartzen da mar-txan.

Aste honetan irakurri dut Britainia Handian gurasoen

herenak ipuinetako per-tsonaia maltzurak hau-rrei egindako kontaketa-tik ezabatu egiten dituela. Otsoak, Bizar Urdinak eta sorginak alfonbrapean. Te-lebistari begira aztoratzen ginenean ere «lasai, peli-kula da-eta» esaten zigun aitonak. Bagenekien hain-beste. Baina pelikulek fik-ziotik adina zuten gure emozioek benetakotik. Hainbeste gauza sentitu ditugu bizitzan, lehenen-go, fikzioari esker... Per-tsonaiarik maltzurrenaren azalaren azpiko geruzak miatzen irakatsi digu fik-zioak, ustez laua zen per-tsonaiari ertzak bilatzen, inoiz biziko ez ditugun munduak gure gorputz bar-rutik igarotzen. Aste ho-netan berriz ere pantailara iritsi zaizkigu iazko urria-ren 1eko Kataluniako esko-la atarietako polizien basa-keriak. Ertzainak ikusi ditugu herri-lurak borra kolpeka okupatzen Zubie-tan, festa debekatuak Gas-teizen eta Monbar Hotele-ko heriotzaren ez-kila kolpeen oihartzunak. Al-fonbrapean gorde arren,

errealitateak badaki fikziorik maltzurrena ere gaingitzen. Eta fikziorik ez bagenu, ez genuke bestelako errealitate bat sor dezakegunik sinetsiko. •



Zer ezkutatzen da alfonbra azpian?

Juan Carlos RUIZ | FOKU